

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Zeanuriko Udala****Ikasleei garraiorako dirulaguntzak ematea arautzen dauen araudia**

Udalbatzak, 2018ko maiatzaren 17an hasierako onarpena eman eutson ikasleei garraiorako dirulaguntzak ematea arautzen dauen araudia. Horretarako jarritako epean alegaziorik ez denez egon, onarpena behin betikoa bihurtzen da.

Araudi osoa publikatzen da.

Zeanurin, 2018ko urriaren 30ean.—Alkatea, Eusebio Larrazabal

**IKASLEEI GARRAIORAKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN
DAUEN ARAUDIA****1. Helburua**

Dirulaguntza honen helburua hurrengokoa da: Eskola garraioa ez daben ikasleei ikasketa zentruetara joateko beharrezkoa daben garraioa diruzlaguntzea. Interesatuaren etxebizitzatik Zeanuriko plazara etortzearen kostua diruzlagunduko da.

2. Onuradunak

Haurreskolarako dirulaguntza eskatzeko, hurrengoko baldintzak bete beharko dira:

- a) Zeanuriko udalerrian erroldatuta egotea.
- b) 16urte baino gehiago izatea .
- c) Eskola garraiorik ez izatea.
- d) Ikasketa ofizilak burutzen izatea.

3. Epeak

Urtero, Zeanuriko udalak epe bat zabalduko dau eskariak aurkezteko.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza gastuaren %80a izango da.

Gastua hurrengo eran kalkulatu da: 0,10 euro/km./urteko.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hilabetean hasiko da indarrean